

ortzadar

larunbata, 2016ko uztailearen 23a. 460. zenbakia

deia.com/ortzadar

euskal kulturaren kolore guztiak



ASKOA ETXEARRIETA

“Flamenco eta txalapartaren arteko fusioa perfektua da”

-- 4-5. orrialdeak --

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK ·

saski-naski



KRITIKA EDORTA JIMENEZ

Ohe hotzetan bada zerbait

TITULUA: 'OHE HOTZAK'

EGILEA: JON ARIZA DE MIGUEL

ARGITALETXEA: ELKAR

OHE hotzak izenekoaren atarikoan egileak, Jon Ariza De Miguelek, Pio Barojaren *Los amores tardios* (Maitasun berantiarak) liburuko esaldi bat jarri du, eleberriarren izaera beste ezerkin baino hobeto ulertarazten diguna, nik uste. "Zer egingo diogu, bada?" -dio Joek-; nik ez hasierarik ez amaierarik ez duten liburuak ditut gustuko". Bada, Barojaren Joe horrek, bizirik balitz, *Ohe hotzak* eleberria gogoko lukeela esango nuke.

Zazpi ataletan egituratua, sarreratatatal guztiek aipu bana dakarte eta nago aipuon bidez eleberria laburbildu ahal izango genukeela, horretara jarritz gero. Guztien artean, ostera, laugarren atalari jarri dionari iritzi diot argigarrien. "Bi lagun artean bata beti da bestearen morroi, nahiz eta maiz ez bata ez besteak hau onartu ez", dio aipuak. Aipuak liburuaren gaia eta konfliktoa zertan diren dio; hain zuzen ere, lagun biren arteko harremana eta harreman horretan bata besteari gailentzea, bien oharkabea bada ere. Aipua M.I. Lermontoven *Gure garaiko heroia* izeneko-

tik hartua dela esateak Ariza De Miguelek idazle erresurriekin erakusten duen miraz hitz egiteko balio lezake, bestela aipuak dioena arrunt ezagun egingo baitzaio *harremana eta haustura* binomioa inoiz bizi izan duen irakurleari, niri neuri egin zaidan moduan.

Eleberrira itzuliz, *Ohe hotzak* honetan, lagun biak narratzailea bera eta haren aspaldiko lagun Tzertxok dira. Bada, aspaldiko lagunak elkarrengandik aspaldi aldenduak, berriro elkartu dira, iraganean bien artean ukan zutena berreskuratzetik badutenetz jakitearren. Horretan saiatu ondoren antzeman duten erantzunak ixten du kontaera. Hori zein den, seigarren atalari ezarri dion aipuak laguntzen digu igartzten. "Denok dugu bizitzako hotzetik eta saminduratik babesteko balio digun gezur-sorta bana; dena dela Yurremendik berokia pittin bat esajeratzen zuen". Halaxe dio aipuak, Pio Barojaren *Xanti Andia-ren kezka* izeneko eleberritik hartu dena bera.

Jon Ariza De Miguelek aspaldiko lagun bien berrelkarretaraztea kon-



Trikimailurik gabe zuzentzen zaio idazlea balizko irakurleari. Halako 'naif'-tasun edo lainotasun kasik sinestesin batez

tatu digun bitartean, egunerokotik hartuak diruditen testu laburrak, oroitzapenak, paradoxen kontaerak, hitz jokoak, postal-testuak eta beste eskaintzen dizkigu liburu honen balio nagusia. Horien bitartez halako tonu bat erdiesten baitu, niri neuri zinez ez-ohikoa eta zintzoa begitandu zaidana. Artez-artez, trikimailurik gabe zuzentzen zaio idazlea balizko irakurleari. Halako *naif*-tasun edo lainotasun kasik sinestesin batez. Kasik, diot, zeren eta azkenean liburuak bere alde paratu nau. Onartu egin dut Ariza De Miguelen proposamena, jolasean sartu naiz, jolasa ere bada eta liburu hau, eta aurreiritziak alde batera utzita dibertitu egin naiz. Horrek *SPrako tranbia* lehenengoz irakurtzean izan nuenaren antzeko sententzia eragin dit, alegia, nire buruari *zer da hau?* behin eta berriro galdetu eta erantzunik etorri ez arren, azkenean bada zerbait, bada zerbait aitortu beharra.

Jon Ariza De Miguelen ohe hotzetan bada zerbait. Zer den esatea zaila izanik, eman dezagun literatura dela.

SALDUENAK

Fikzioa

- 1. Zu**
Anjel Lertxundi. Erein.
- 2. Hauts haieztatik**
Unai Villena. Elkar.
- 3. Arrotz eta eder**
Pako Aristi. Susa.
- 4. Bizi baratzea**
Jakoba Errekondo. Argia.
- 5. Kearen fiordoa**
Iñaki Petxarroman. Elkar.
- 6. Txistu eta biok**
Juan Luis Zabala. Algaida.

Ez Fikzioa

- 1. Lapur banden etika...**
Joseba Sarrionandia. Pamiela.
- 2. Txanton Garrote**
Iñigo Aranbarri. Pamiela.
- 3. Euskaldunak eta karolingiar iraultza**
Iñaki Lopez de Uzuriaga. UEU.
- 4. Txillardegiren borroka...**
Pako Sudupe. Elkar.
- 5. Periko gazteekin solasean**
Eneko Barberena. Txalaparta.

ITURRIA: Elkar.

ERAKUSLEIHOA

LITERATURA

'Mrs. Hemingway'

Naomi Wood, itz.: Garazi Goia. Txalaparta. 384 orr.: 19 euro.



Hemingway andreak

Ernest Hemingwayk emakumeekin izan zituen harremanak gatazkatsua izan ziren; ezkontza ordenatua desiratzen zuen arren, bikotez bikote ibili zen idazle entzuetetsua. Bere bizitzan izan zituen lau emazteak agertzen dira Naomi Wooden eleberririkoral honetan: idazlearekin Parisen bizi izan zen eta bere lehen semearen ama izan zen Hadley Richardson; hasieran amorante eta gero emazte izan zen Pauline Pfeiffer Fife; Espainiako guda zibilean harekin batera gerra berriemate izan zen Martha Gellhorn eta ezkondukoan kazetari lanbidea utzi zuen Mary Welsh.

LITERATURA

'Ispilu biluziak'

Edu Zelaieta. Pamiela. 80 orr.: 11 euro.



Ispilu jolasa

Edu Zelaietak (Gasteiz, 1973) aitaren heriotza eta hura eraman zuen gaitzaren prozesua izan ditu bere laugarren poesia lana idazteko emamuina. Idazlea, ordea, ez da liburuko protagonista. Beste pertsonaia batzuk ageri dira poemotan, haien bitartez egileak bere 'ni'-az hitz egiten duelarik, 'ni'-az idazten duenean besteaz ere ari dela jakitun. Horrela ba, eta denok elkarren ispilu garen neurrian, pertsonaiak elkar gurtzatu egiten dira hainbat poemotan, ispilujolas bat planteatuz, izenburuak iradokitzen duen haritik tiraka. Gainera, "inoizko liburu narratiboena" idatzi duela adierazi du egileak, ahokotasunetik gertu.

ZALDI EROA



ORAIN dela hiru urte abiatu zen TAOM estudioaren proiektua eta gaur egun hainbat diziplina ezberdinen elkargunea da: ikus-entzunezko ekoiztetxea, musika estudioa eta publizitate agentzia ere bada. Guzti honen koordinatzailea da Jagoba Ormaetxea musikari eta ekoizlea. “Ni konbentzita nongoen. Banekien arlo hauen guztien fusioa zela biderik onena. Niri, estudioan lan egiteak guztiz motibatzen nau, dela grabatzen, konposatzen edo ekoizten”, jakinarazi du.

Musika eta audioaren inguruko kontu guztiak kudeatzeaz arduratzen da Ormaetxea eta baita TAOM-en koordinazioaz ere. Izan ere, musika munduari lotuta egon da bere bizitza gazte-gaztetatik. Umetan hasi zituen gitarra eta piano ikasketak Bilboko kontserbatorioan, eta erdi mailako gradua atera eta gero, jazz-a, musika garaikidea eta ekoizpen musika ikasi zituen Londres eta Bartzelona artean. 18 urterekin lehen soinu banda konposatu zuen Madrileko produkzio-etxe batentzat. Ondoren, irakaskuntzara egin zuen salto, eta gitarra, pianoa eta musika ikasgaien klaseak ematen hasi zen hainbat eskolatan. 24 urte zituela, musika ekoizpenean bere lehen pausoak eman zituen J.O. Studios sortuz, eta pare bat urte beranduago, bere gaur egungo estudioari ekin zionean, musika klaseak alde batera uztea erabaki zuen.

Urte guzti horietan hainbat talde, artista eta proiektu pasa dira Ormaetxearen eskuetatik: Manuel Carrasco, Ainhoa Cantalapiedra, Rosana... Euskal Herriko hainbat talderekin ere lan egin izan du, Enkore, Hesian eta Vendettarekin, besteak beste. Hainbat bideo klip ere egin ditu: Gatibu, Enkore, John Berkhout, Rural Zombies, Grises, Andres Suarez, Eraso edo Skasti bezalako taldeentzat, beste batzuen artean.


ALDAKETA KONSTANTEAN Musika ekoizpenaren gaur egungo egoerari buruz galdetuta, “denetarik” dagoela dio Ormaetxea, baina gauza bat argi badu, hori musikaren mundua arlo guztietan aldatzen ari dela da: grabazioak, ekoizteko moduak, mundu digitala, auto-ekoizpenak... “Egun, gauza gutxirekin asko lortu dezakezu. Ia dena gure esku dago, baliabideak nola erabili ikasi beharra dago, besterik ez”. Musika ekoizpenaren etorkizunari buruz baikorra da Ormaetxea. “Etorkizun ona ikusten dut; gazteak oso prestatuta datoz eta, gainera, talentu askorekin lagunduta. Uste dut gaur egun ezagutzen ditugun musika estudio handi eta garrantzitsuak gutxika desagertzen joango direla, oraingo lan egiteko erara moldatzen ez badira behintzat”.

Etorkizunera begira dagoen estudioa

Musika ekoizteko modua aldatuz doan heinean, garapenerako eta teknologia berrien aldeko apustua egin du **Jagoba Ormaetxeak** gidatzen duen TAOM musika eta ikus-entzunezko estudioak

 JONEBATI ZABALA



 Grabazio, konposizio eta ekoizpen lanak burutzen ditu Ormaetxeak TAOM estudioan. DAVID GANDARA

Oso tarte laburrean hiru kide izate-tik zortzi laguneko lantaldea izatera pasatu dira TAOM estudioan. “Gauzak bide egokian” doazen seinale dela hori dio Ormaetxea. Dena den, bere esanetan, besteengandik ezberdintzea izaten da erronka han-

diena lan esparru askotan, eta sektore honetan ere gauza bera gertatzen dela uste du. “Arlo ezberdin askotan ondo prestatuta gaude eta musika proiektu bat hasieratik amaierara koordinatzeko gai gara”, azaldu du. Izan ere, ekoizpen, konponketa eta

grabaketa lanetan esperientzia luzea du Ormaetxeak, eta baita zuzeneko eta estudioko musikari gisa ere. Horrez gain, amaierako produktua merkatuan kokatzen jakiteak ere garrantzia duela azpimarratu du. Baina, funtsean, “garrantzitsuena

pertsona” dela uste du, hau da, “bakoitzak dituen baliabideak erabiltzeko duen modua eta artea transmititzeko era. Euskal Herrian kalitatezko hainbat estudio eta musikari daude, baina ezberdintzen gaituena da nola irudikatzen dugun barnean daukagun ezagutza. Gure lanak ikustea besterik ez dago horretaz ohartzeko”, gaineratu du ekoizle gazteak.

MUSIKAN, AINTZINDARI Mundu mailan oraingoz oso gutxi landu den 360 graduko musika konposatzen hasi da Ormaetxea. Zineman edota 6.1 soinu sistema batekin entzun daitekeen soinua musikari aplikatzean datza hau, baina bozgorailuetatik izan beharrean, aurikularrekin. “Imajinatu musika tresna bakoitzak bere tokia duela, eta, horrez gain, aurretik atzera zein goitik behera mugitu daitekeela. Estereo sentsazio batekin ezin daiteke hori lortu eta horretarako teknika konkretu batzuk erabili behar dira grabazioan, soinu tratamenduan zein nahasketan”, azaldu du Ormaetxeak. “Momentuz, nik dakidanez, ez da

“Gauza gutxirekin asko lor dezakezu egun. Ia dena gure esku dago, baliabideak nola erabili ikasi beharra baino ez dago”, dio Ormaetxeak

merkatura atera 360 gradutan egindako musika diskorik. Muse taldeak zuzeneko bat grabatu du orain dela gutxi, baina gehiagorik ez”, gehitu du.

Berrikuntza eta garapeneren aldeko apusturekin jarraituz, 3D 360 graduko bideoak lantzen ere hasiko da

TAOM, hau da, hiru dimentsioko perspektiba duten bideoak ekoizten. Teknika honek urte gutxi batzuk baino ez daramatza merkatuan, eta teknologia horiek aplikatzeko era ezberdinak ezagutzeke daudela dio Ormaetxeak. “3D betaurrekoak erabiliz errealitate berri batean sartu zaitezke eta esperientzia berri bat bizi. Nahi duzun gutxia sortu dezakezu. Guk turismora bideratuko dugun arren, medikuntza edota arkitektura arloetan ere erabiltzen da”, jakinarazi du. “Azken batean, esperientzia berrien mundua sortzeaz dago eta bertan lekutxo bat topatu ahal badugu, ezin hobeto”, adierazi du Ormaetxeak.

Etorkizuna teknologia berriak direla dirudien momentu honetan, kontrako irakurketak ere badaudela kontatu du ekoizleak. “Badirudi musikan teknologia erabiltzeak alfertu egiten gaituela, baina teknologia gure alde erabili behar dugulakoan nago ni, horri esker azkarra egiten baitugu lan, emaitza hobekia lortuz eta ekipamendurako inbertsio txikiagoa eginez”, nabarmendu du Ormaetxeak.

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA

Begirada

Urtzi Vera Bilbo, 1975

ikus: www.urtzivera.com | www.urtzivera.blogspot.com



Datorren astean...

Eider Bernaola

h! Herri hizkeran jantzia? Sartu eta egin aproba

herrizki aplikazioa

Garapena: **artez** AKTING... BaBestak:

url: android: iOS: